

# MIKEL ZABALZA

## MENDITIK ETA MENDIRAKO

TESTU ETA ARGAZKIAK



Ioritz Gonzalez Lertxundi  
(Azkoitia, 1980)

Biologian lizentziatua eta irakaslea. Kirol eskalada zale amorratua, 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin. Eskaladaren iguruan ikerketan aritu izan da. Pyrenaicako erredakzioko kidea da.



Ruben San Martin "Welcome Nico" bidean, Collarada

Mikel Zabalza alpinista eta eskalatzailer ezaguna (Iruñea, 1970) goi-mailako erreferente bat da mendizaleon artean. Munduko mendi eta bazter ezberdinetako hainbat eskalada eta bideek bere sinadura daramate. Bere jardueren zerrenda amaigabea lerro hauen bidez adieraztea ezinezkoa izango litzateke, honetarako liburu oso bat idatzi beharko baikenuke, bai-

na berarekin elkarrizketa bat izan dugu bere azken jardueren berri izateko.

Mikelen esperientzia eta mailaren ideia bat egitearren, eginiko jardueren zertzelada batzuk aipatuko ditugu. Esaterako, 38 expeditiotan hartu du parte munduan zehar, Nepalen, Indian, Tibetean, Patagonian, Tierra de Fuegoan, Groenlandian eta Antartidan bestek

beste. Pareta handietan ere sona handiko hainbat bide ireki izan ditu, Trango Dorreko "Insumisioa" edo Gavarnieko izotz-jauzietan ireki izan dituen zenbait bide adibidez. Alberto Iñurrategi eta Juan Vallejo alpinista ezagunekin ere zenbait abentura bizi izan ditu, guztietan muga propioetara gerturatuz, bere esanetan.

## Munduko hainbat mendi eta paret eskalatu izan ditut, baina kuttunenak Pirinioak ditut inongo zalantzarik gabe

Munduan zehar hainbat eta hainbat paret eta mendi eskalatu izan ditu, baina bere mendi kuttunenei buruz galdetzean, Pirineista sutua dela erantzun digu zalantza izpirik gabe. Dioenez, mendi hauek bere bizitzaren parte dira, eta beti aurki daiteke bertan txoko berri eta zoragarriren bat. Pirinioetan Mikelek 80 bide baino gehiago ditu irekiak, hasi Ansabere-rik eta Ordesaraino.

Mendiarekin zerikusia duten beste hainbat proiektutan ere hartu izan du parte, "Al filo de lo imposible" programa ezagunean edo "Basque Team" proiektuan esaterako. Bestalde, UIAGM Goi Mendi Gidari Profesionala da, gidari profesional moduan errekonozimendu internazionala aitortua du beraz. Honetaz gain, FEDMEko Alpinisten Talde Nazionalako zuzendaria da 2011. urtetik (Espainiako Mendi eta Eskaladako Federazioa).

## Lortu izan ditudan igoerei buruz jardutea baino nahiago dut egiteko dauzkadanekin amesten jarraitu

Dudarik ez dago kirolari apart bezain umil honek izugarriko ibilbidea duela. Berak dioenez, mendiak motibazio iturri bukaezina eskaintzen jarraitzen dio, amesteko eta bizirik sentitzeko lekua. Honetaz gain, bizitzako unerik ederrenetakoak bertan bizi izan ditu, hainbat lagunekin izan dituen proiektu eta bizipen asko esaterako. Aitzitik, bere hitzetan, lortu izan dituen gauzak nabarmentzea baino nahiago du egiteko geratzen zaizkion proiektuekin amesten jarraitzea.


Azken hilabeteetan esan daiteke mendi hainbat jarduera egiteko baldintza egokiak izan direla, eta Mikelek ez du aukera alperrik galdu. Denboraldi oparoa egin du, hainbat eskalada eta irekiera sinatuz, eta hurrin joan gabe, Pirinioetan bertan. Hona hemen berarekin izandako elkarrizketa:

### Egun, zure jarduerekin erlazioaturiko zein proiektutan zaude murgilduta?

Egun FEDMEko Alpinisten Talde Nazionala zuzentzen nabil, nire bederatzigarren urtea



Topo Ripera



Topo Lizara


da zuzendari moduan. Aurtan, talde honekin hirugarren urtea denez, ziklo amaierako expeditzioa antolatzen gabiltza (hiru urteko zikloak dira). Gure asmoa ekainean Pakistanera joan eta K7a estilo alpinoko egitea zen.

## Egun, nire bizitza profesionala %100ean mendia eta eskaladarekin loturiko jardueretan oinarritzen da

Honetaz gain, Eskaladako Kirol Teknikarietako formakuntza saioak ematen dizkiet Altsasun, Mendi-gidaritza eta Autoerreskate moduluetako irakasle bainaiz. Egun, nire bizitza profesionala %100ean mendia eta eskaladarekin loturiko jardueretan oinarritzen da.

### Zer ekarpen pertsonal egiten dizute zure jardueretarako?

Mendi-gidaritza lanek adibidez izugarriko asebetetze pertsonala. Jarduera batzuk aurrera ateratzeko guztia eman behar izaten dut. Ez dugu ahaztu behar pertsonen



Topo Collaradako iparra

lanean ari garela, eta kasu hauetan osagai emozionala oso garrantzitsua dela. Emozioak partekatzea Mendi-gidaritza lanaren alderdik onena dela esango nuke.

**Zure kirol ibilbideko bizipen, esperientzia edo jardueraren bat aipatuko zenuke, adibidez zure lehenengotariko bat?**

Ba adibidez, nire lehenengo zazpimilakoa Fermin Izcorekin egin nuen estilo alpinokan. Lempo-Gan (7125m) mendia izan zen, Langtango bailaran, 1992ko azaroan. Orduan estilo pirata praktikatzen genuen, garai haiek garestiak ziren guretzat, jajaja...

Urte batzuk pasa ondoren web orri frantziar batean irakurri nuen ekspedizio Frantses-Nepaldar internazional batek guk igotako bide beretik igo zuela. Lehenengo igoera bezala sinatu zuten, baina estilo

Mikel eta Alberto "Mandanga de la buena" ireki ondoren, Campanaleseko gailurrean



klasikoan, soka finko eta kanpamenduak erabiliz. Egia esan ilusio handia egin zidan argazki haiek ikusteak, guk estilo alpinokan egindakoari balio erantsi bat eman baitzion. Eta noski, ez nien esan beraiek egindako bidea jada eginda geneukala, zoritxarreko us-tekabea izango baizuten bestela.

**Identifikatzen zaituen lema edo esaldiren bat?**

"Ez izan motibazio faltarik zure bizitzan", eta edozertarako balioko luke.

**Joan den negua nolakoa izan da mendian baldintzei eta jardueri dagokienez?**

Joan den negua ezohikoa eta aparta izan da alpinismoa praktikatzeko erdialdeko eta mendebaldeko Pirinioetan adibidez. Azaroan eta abenduan izan ziren prezipitazioek mendi altuenera ipar hormetan ohikoa baino izotz gehiago egotea eragin zuten. Honi, izan dugun negu antizikloniko eta samurra gehiturik, eszenatoki hauetan izugarri gozatzeko parada izan dugu.

**Neguan gauzaturiko jardueren zerrenda bat egingo zeniguke?**

Negua denboraldian bederatziz irekiera ezberdinetan hartu dut parte mendebaldeko Pirinioetako txoko ezberdinetan. Lehenengoa eta interesgarriena Tozal de Ripera iparrean egindakoa izan da Alberto Fernandez eta Iker Madozekin. Bide konplexu honi ekiten nion hirugarren saiakera zen, eta aurretik izandako esperientziak oso baliagarriak izan zitzaizkidan ibilbide onena aukeratzeko. Eskalada



maila altua behar da bide guztian zehar, eta seguruak ezartzea ez da erraza. Bidea irekitzeko, bibak bat egin genuen elur-zulo batean moldaturiko erlantz edo irtengune eskas batean. Honela, denbora faltak sor zezakeen estresa ekiditea lortu genuen. Bigarren egunean arratsaldeko ordu bietan iritsi ginen gailurrean, eta honela lasaitasunez eta argi arazorik gabe jeisteko aukera izan genuen.

Nacho Merino eta Ruben San Martinek asetebe beranduago egun batean errepikatzea lortu zuten, baina tontorrera gaueko hamarre-



Mikel, Aitz bideko lehenengo luzean, Lizara sektorean

tan iritsi ziren eta jaitsiera gogorra eta arrisksua egin zitzairen. Gailurretik deitu egin zidaten jeitsierarako aholku eske. Gabaz, egun osoa eskalatu ondoren eta jeitsierak duen sentsazio bertikalarekin, burutik gauza asko pasa daitezke. Jeitsieran, ilunetan galtzea oso erraza izan daitekeen zeharkaldi arriskutsu bat dago, baina zorionez, aurreko astean guk utzitako aztarnak aurkitu zituzten.

FEDMEko alpinista taldeko gazteekin egin genuen kontzentrazioa baliatuz ere bide batzuk ireki genituen Bernerako iparrean. Mo-

tzak dira baina aldi berean tekniko bezain gogorrak. Eremu hau begiz jota nuen aurreko urteetatik, Oliboneko iparrera joan nintzanean. Esplorazio egun bat egin nuen eta bingo!! Izotzezko egitura apartak zeuden eta beraz aukera asko zeuden jarduera politak egiteko. Desplomaturiko izotzezko egitura bikainak zeuden, seguruak ezartzeko eta eskalatzeko aukerak eskainiz gainera.

Bide luzeenak lau luze ditu eta guztiak kalitate handikoak dira. Ez genuen inolako seguru finikorik ezarri, eta beraz, artifizialean eskalatu

behar izan genuen tarte batzutan. Etorkizuneko errepikatzaileentzat erronka ona dela esango nuke, seguru ni neu ere bueltatuko naizela. Luze batzuk zailtasunari, kalitateari eta konpromezuari dagokionez, Kanderstegeko "Flying circus" bide mitikoarekin alderatu daitezke. Sektorea "Lizara" izenarekin bataiatu genuen, aterpe honetako langileen omenez, beti eskaintzen diguten arretagatik.

Ip-eko zirkuan ere bide batzuk irekitzeko aukera izan dugu. Bertaratu ginenean baldintza ezin hobeak aurkitu genituen, ia



zirku guztia garbi, horma bikaina, bakartua, eta aldi berean etxetik gertu. Hemen, Ip-eko Campanalesen bi bide ireki genituen eta Collaradako iparrean hiru. Nire aburuz guztiek dute ezaugarri bereizgarriren bat, oso onak dira denak. Guztiek dute zerbait berezia, maila, trebezia eta eskarmentua behar da, baina goi-mailako eskalada izan gabe. Azken finean, horma handi batean dauden bide edo linea logikoak dira. Nik uste sektore hau ez dela oso ezaguna egingo, duen kokalekuegatik. Canfranc herritik abiatu behar da, eta bi ordu eta erdi edo hiru egin behar dira oinez iboi alboan dagoen bibak-aterperaino. Hemendik, beste 30 edo 40 minutu gehitu behar zaizkio.

Hiru bider izan naiz hemen, lehenengoa Alberto Fernandezekin, Campanalesen bi egun eginez. Bigarrena, Ruben Sanmartinekin, bi bide irekiz Collaradako iparrean. Hirugarrena, Iñaki Arakistain eta Joseba Larrañagarekin, Collaradako azken bide logikoa irekiz, gailurrera iristeko iparreko ertz edo arista luzea jarraitu genuelarik.

### **Galdetu ez dizugun zerbait aipatzea nahiko zenuke?**

Beti pentsatu izan dut bila ibiltzen denak aurkitu egiten duela. Abentura eta bakardade bila ibiliz gero, neguan aurkitu daiteke. Garai hauetan, neguko baldintzak ezagutzea ez da hain zaila, bide bat neguan igo eta interneten argitaratzen denean ia ziur baitakigu errepikanen bat izango duela. Eskalatzaile ia gehienak leku berdinetan pilotzen dira denboraldi bakoitzean. Igoera mota hauetan, gainerik beste eskalatzaile batzuk egotea arriskutsua izan daiteke, eta ondorioz ez zait gustatzen argitaratu berri diren bideetara joatea. Aitzitik, informazio edo argibide horiek oso baliagarriak izan daitezke beste leku batzuetako baldintzak estrapolatzeko.

### **Zorioneko sentitzen naiz Pirinioetako hainbat txoko zoragarri ezagutu izanaz**

Mendebaldeko Pirinioak alpinista askorentzat ezezagunak diren arren, horma

ezinhobe eta bikainak dituzte. Bertan egin diren jardueri buruz ez da informazio asko argitaratu, eta are gutxiago interneten. Honek xarma berezia ematen die txoko eta bazter hauei. Adibidez, Iñigo Andola, Iñaki Arakistain, Joseba Larrañaga azkoitiarrak eta Alberto Fernandez elgoibartarra oso eskalatzaile emankorrak izan dira bailara hauetan. Beraiek irekiriko bide asko, Alanosen, Leniton, Chorrotan, Llena del Bozon, Llena de la Gargantan... errepikatu gabe daude. Ez dute seguru finkorik ezartzen eta nik uste bide hauek erronka paregabeak direla. Askoz errazagoa da Mont Blanc-en M6 graduko bide bat eskalatzea, mendebaldeko Pirinioetako bide berri hauetako bat eskalatzea baino. Bide hauetan, kotazio edo graduazioak estutuagoak daude eta orokorrean konpromezu maila altuagoa da. Jolasgune ezin hobea gero beste edonora joan, indartsu sentitu eta autostima igotzeko, jajaja...

Egia esan, zorioneko sentitzen naiz para je eta txoko zoragarri hauek ezagutu izanaz, etxetik gertu. Pirinioak, munduko onena.

Mikel, Aitz bideko lehenengo luzean, Lizara sektorean 2

